cuando se crean grupos de edades diferentes, y a falta de medidas concretas para hacer frente a la burocratización, se ha creado una comisión; eso sí, se ha conseguido reducir el número de horas lectivas. Además de los incrementos salariales impuestos por Madrid para el profesorado, por primera vez en 15 años habrá incrementos adicionales, pero la recuperación del poder adquisitivo no se ha dado y en los próximos años no se ha garantizado que no se vuelva a perder más. Y las medidas para mejorar la salud laboral han sido muy superficiales, 14 técnicos de prevención seguirán trabajando para atender a más de 27.000 personas. ELA no ha firmado el acuerdo porque faltan estos contenidos y el profesorado ha demostrado que estaba dispuesto a seguir luchando. Y, sin embargo, luchar merece la pena.


### Esta lucha merecía un final mejor

Luchar merece la pena. Porque por primera vez en los últimos 15 años hemos conseguido cambiar la propuesta de condiciones de trabajo

que el Departamento ha querido imponer y les hemos obligado a negociar de verdad. Ha merecido la pena porque ha habido algunos logros parciales, pero no hay acuerdo histórico. En ELA nos enorgullece haber dado lo mejor para que sea una lucha memorable. Los trabajadores y las trabajadoras también tienen motivos de orgullo, porque la lucha en muchas escuelas ha servido para reforzar la organización de las plantillas, y eso puede servir para seguir luchando escuela a escuela. ELA está dispuesta a colaborar en las luchas por hacer frente a los problemas que se plantean en las escuelas, además del debate de las condiciones de trabajo. ELA está dispuesta a luchar por cambiar el modelo de educación segregadora, por hacer frente a la mercantilización de las escuelas, por avanzar en la euskaldunización del alumnado, por luchar por una digitalización a favor del alumnado y el profesorado... Porque aunque los trabajadores y las trabajadoras merecían seguir luchando y ELA considera que esta lucha merecía un final mejor, la lucha ha merecido la pena, y las siguientes luchas la merecerán aún más. ■



# HUELGAS EN LA EDUCACIÓN PÚBLICA



## POR QUÉ HAY LOGROS AQUÍ Y NO ALLÍ?

## ALGUNAS CLAVES...

### > COCINA Y LIMPIEZA

#### REPRESENTACIÓN

ELA 33% (primera fuerza)

#### FIRMANTES

Todos los sindicatos

#### DÍAS DE HUELGA

14 días de huelga (4 en 2025 + 10 en 2022 para conseguir la consolidación, convocadas sólo por ELA)

### > REIVINDICACIONES

#### CONSOLIDACIÓN DEL EMPLEO

- Temporalidad real al 8%
- Concurso de méritos garantista para la consolidación
- Una OPE con 55 plazas mientras el convenio esté en vigor.

#### MEJORA DE RATIOS

- Un 17% de mejora de ratios para el personal de cocina.
- Bajada de 100 m y mejoras adicionales para el personal de limpieza.

#### RECUPERACIÓN DEL PODER ADQUISITIVO

- Subida del 9% para las cocineras en 2025.
- Subida del 7% para el personal de limpieza en 2025.
- Subida del 0,06% en la ropa de trabajo.

#### PLAN DE REJUVENECIMIENTO

- Posibilidad de reducción y acumulación de un tercio de jornada a partir de los 60 años.
- Jubilándose a los 65 años, posibilidad de dejar el trabajo presencial con 63 años y 4 meses.
- Contrato de relevo

#### REDUCCIÓN DE JORNADA

- Jornada anual: Personal de cocina 108 horas menos/personal de limpieza 120 horas menos. 1472 horas anuales en los dos casos.
- El personal de cocina 190 días de trabajo anuales.

### > PROFESORADO

ELA 20% (tercera fuerza)

Todos los sindicatos salvo ELA

9 días de huelga

- Tasa de temporalidad por encima del 30%
- Sin medidas para consolidar al personal temporal.

- No hay una bajada generalizada de ratios: En Primaria y en Educación infantil en caso de agrupamiento de alumnado de diferentes edades (excepto 2-3 años), reducción de un sólo alumno/a.
- Escaso incremento de recursos humanos.

- 7% de subida entre los años 2025-2028.
- Mejora de algunos pluses.

- Posibilidad de reducción y acumulación de un tercio de jornada a partir de los 60 años.
- Posibilidad de reducción de media jornada a partir de los 65 años.
- Sin posibilidad de acumular las dos opciones.
- Sin contrato de relevo

- Educación infantil y primaria: una hora lectiva menos en el curso 25/26 y dos horas menos en el curso 26/27.
- Descenso de horas lectivas condicionado en Educación Secundaria.

### > HAURRESKOLAK

ELA 17% (tercera fuerza)

Sólo LAB

2 días de huelga

- Tasa de temporalidad por encima del 30%
- Sin medidas para consolidar al personal temporal.

- No hay medidas concretas en el convenio: se ha dejado para más adelante la negociación.

- Una subida del 0,12% para la ropa de trabajo

- Sin mejoras respecto a lo vigente.
- Contrato de relevo en el aire.

- Jornada laboral: 100 horas menos/1470 horas anuales
- 200 días de trabajo anuales.

## ...Y ALGUNAS CONCLUSIONES CLARAS

1. ELA firma si los contenidos principales tienen respuesta
2. Hay huelgas en sectores donde ELA es la primera fuerza
3. Cuando hay **huelgas** se consiguen las reivindicaciones
4. Habrá que negociar los **próximos convenios**; y el próximo curso tendremos que pelear por los contenidos que han quedado pendientes en los convenios...



LANGILERIA ANTOLATU,  
GIZARTEA ERALDATU

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# Cuando el árbol no deja ver el bosque (de la precariedad)

La plantilla de Enviser, contrata del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el mantenimiento de parques, jardines y del anillo verde de la ciudad, lleva en huelga indefinida desde el 26 de marzo para lograr un convenio propio que acabe con la precariedad laboral que sufren



## > Gorka Quevedo

La plantilla de Enviser, subcontrata del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el mantenimiento de parques, jardines y el anillo verde, se encuentra en huelga indefinida desde el 26 de marzo. Hartos de la precariedad laboral –la plantilla actualmente se rige por un convenio estatal con salarios que rozan el SMI y jornadas eternas–, ha decidido decir basta y luchar por un convenio de empresa.

**Andoni Castro**, responsable de Zerbitzuak en Gasteiz, denuncia que la plantilla lleva más de un año reivindicando iniciar conversaciones para lograr un convenio colectivo propio, cosa que, hasta ahora, ha sido imposible. “Por ello, –añade– no nos han dejado otra opción que convocar huelga indefinida, porque no estamos dispuestos a seguir bajo un convenio estatal con salarios de miseria”.

Las y los trabajadores de Enviser –ELA tiene 3 de los 5 delegados y delegadas del Comité de Empresa– están realizando numerosas movilizaciones para socializar su situación. En este contexto, están contentos con el apoyo recibido por parte de la ciudadanía. Sin embargo, tal y como denuncia Andoni Castro, estamos ante un conflicto en que tienen que lidiar con múltiples factores e intereses en contra: empresa, Ayuntamiento e, incluso, Gobierno Vasco.

“A día de hoy, la empresa no ha mostrado voluntad real de llegar a un acuerdo. En las reuniones mantenidas la propuesta ha sido una subida de un 3% anual, alrededor de 43 euros brutos al mes. Además, se escuda en que su única posibilidad de mejora de los salarios es aplicarla al finalizar el contrato que mantiene con el Ayuntamiento, es decir, en enero de 2028. No podemos olvidar que hablamos de salarios que apenas superan el SMI”.

Castro denuncia que el Ayuntamiento tampoco está haciendo mucho en pos de lograr un acuerdo. “El gobierno municipal tardó 42 días en recibir al comité de huelga y solo lo



hizo tras ser solicitado por la plantilla en Pleno Municipal. Y las pocas veces que hemos estado su respuesta ha sido que poco pueden hacer para solucionar un problema que han provocado sus propias políticas de privatización y subcontratación. Tenemos la sensación que la propia empresa tiene más poder que el Ayuntamiento”.

Pero, además de Enviser y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, el propio Gobierno Vasco se ha involucrado de un modo u otro en el conflicto: el 16 de junio decretó unos servicios mínimos que, en opinión de Andoni Castro, están injustificados.

“Creemos que esos servicios mínimos no están justificados, y, además, creemos que vulneran el derecho de las trabajadoras y trabajadores a la huelga. Justifican su decisión con informes sobre riesgos de incendios o incidencias en el tráfico. Conviene recordar que no se trata de un servicio esencial y que en huelgas similares en servicios de mantenimiento de parques y jardines, el propio Gobierno Vasco nunca ha impuesto servicios mínimos. Hablamos incluso de en casos de conflictos más largos que el actual de Gasteiz. Y, por cierto, no deja de ser curioso que ahora se considere

esencial un trabajo castigado con condiciones de trabajo muy precarias”.

Por ello, Castro considera que estamos ante una estrategia conjunta del Ayuntamiento, la empresa y el propio Gobierno Vasco para intentar acabar con la huelga por la fuerza, en lugar de facilitar la búsqueda de un acuerdo.

### Impacto visible

Sin embargo, pese a todas las dificultades, Andoni Castro está convencido de que las y los trabajadores de Enviser lograrán su objetivo: un convenio colectivo propio que garantice condiciones laborales dignas y salarios suficientes.

“No hay más que dar un paseo por Vitoria-Gasteiz para darse cuenta de que la huelga está teniendo un evidente impacto. Por mucho que intenten tapar la realidad amplias zonas verdes de Gasteiz están en un estado silvestre. La plantilla está fuerte, animada y cohesionada. Estoy convencido que con la lucha de la plantilla y la movilización ciudadana conseguiremos presionar a los responsables del conflicto para que encuentren una solución”. ■

## UGAOKO LOREZAINAK ERE GREBAN

ELAk greba mugagabea hasi du Garbialdi azpikontratutako enpresak kudeatzen duen Ugaoko (Bizkaia) lorezaintza eta kale garbikuntzako zerbitzuan. Plantilla osatzen duten bederatzi langileei Bizkaiko garbiketa eta lokalen hitzarmena aplikatzen zaie, hitzarmen prekarioa; lan baldintzak nabarmen hobetuko dituen enpresa hitzarmena aldarrikatzen dute. Maiatzaren 26an ELAk hilabeteko grebara deitu zuen, baina negoziazioetan aurrerapausorik ez dagoela ikusita, ELAk greba mugagabea deitzea erabaki du.



**Unai Martinez.**  
Industria eta Eraikuntza federazioko  
idazkari nagusia

# Bridgestone: Justizia saihesteko trikimailu zaharra

**A**zkenaldian euskal enpresa askotan kaleratze kolektiboak ari dira mahai gainean jartzen. Kasu bakoitzak analisi berezia eskatzen du, baina testuingurua betiere berdintsua da. Rajoyren gobernuak 2012an ezarri zuen lan-erreformak erregulazio-espeditenteetako kontrol administratiboa kendu zuen; prozesua arindu zuen, kaleratzeko zergatiak erraztuz; enpresei aukera eman zien espeditentea aldebakarreko erabakiz irekitzeko, eta kaleratzea bera merkatu zuen.

Hau da, enpresak bultzatu zituen kaleratzeak merke eta azkar egitera, eta administrazioak erabaki horiek ezin zituen mugatu. Gainera,

jakinik halako egoeretan lantalde antolatuak beren enpleguaren alde mobilizatzeko prest izango zirela, erabaki horiei aurre egiten dien jendea zigortu eta kriminalizatzeko legea ere egin zuten. Ordutik hona Madrilen izan diren zenbait gobernuak bere buruaz esan dute "historiako progresistenak" zirela, baina Rajoyren erreforma indarrean da aipatutako gai guztietan.

Horrenbestez, langileen ordezkariak testuinguru horretantxe izaten dira kaleratzeak iragartzen zaizkienean; gidoia hau izan ohi da:

1. Zuzendaritzak aldeaz aurretik bere helburuak definituta ditu: zenbat langile kaleratuko dituen

eta horrek eragingo dion kostu ekonomikoa.

2. Enpresak prozesu bati ekiten dio zeinetan "fede ona" agertu behar duen, eta malgutasunez jokatzen duela pentsarazteko bere posizioa nolabait egokituko du. Esaterako, haren helburua bada 200 lagun kaleratzea, espeditentea irekitzean kopuru handiagoa emango du, azkenean helburu horretaraino jaisteko.
3. Prozesuan zehar enpresaren helburua da ordezkarien gehiengoak espeditentea onar dezan lortzea, horrela epaileek ez baitute egoera aztertuko, ez eta erabakiko ere ea zergatiak

## ERREDAKZIO TALDEA

**Zuzendaria:** Iván Giménez.

**Koordinatzailea:** Gorka Quevedo.

**Idazlariak:** Nagore Uriarte, Haimar Kortabarria, Xabier Harluxet, Ainhara Plazaola, Lander Zabaleta. Davide Cabaleiro, Iñaki Zabaleta, Aiala Elorrieta

**Argitarazle:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

**www.ela.eus · landeia@ela.eus**

benetakoak diren. Sinadura lortzeko mezu bat emango du: Langileek ulertu behar dute akordiorik ez badago ondorioak are okerragoak izango direla; kalteordainak txikiagoak, etab.

Eraso hauen aurrean sindikatuek bi jarrera har ditzakete: batzuek uste dute enpresaren erabakiak ontzat eman behar direla eta komeni dela kaleratzeak adostea. Enpresako arduradunek badakite kaleratzeen kontsulta aldia bukatu aurretik sindikatuokin akordioa iritsiko duela. Hori bai, negoziazioa antzeztu beharra dago, bai baitakite sindikatu horiek ez dutela auzitara joko edota negoziazio epe legeetik haratago ez dutela greba mugagaberik hasiko. Horixe gertatu da Bridgestonen. Enpresa honek aurtengo lehen hiru hiletan 464 milioi euroko etekinak pilatu ditu, baina apirilaren 1ean Basauriko eta Kantabriako Puente San Migueleko lantegietan 546 kaleratze iragarri zituen; CCOO-k, UGTk eta BuB-k hilabete eta erdiren buruan 420 langile kaleratzea adostu zuten. Guk, ordea, ez dugu prozesurik onartzen negoziazioa itxura hutsa denean eta langileak xantaiaren eta etsipenaren menpe jarrita bozkatzera behartzen dituztenean.

Lehentasuna da kaleratzeak egiteko asmoa dutenen plangintza aldaraztea. Mobilizazioak hasten ditugu, enpresei kaleratzeek eragin diezaiketenean kaltea baino handiagoa eragiteko asmoz (produkzioan, emaitza ekonomikoetan zein irudi onean) eta borroka judiziala prestatzen dugu, kaleratzeak indargabetzeko arrisku legala sortuz. Izan ere, soilik orduan, enpresak ziur ez dakienean langileak kaleratzeko modurik izango ote duen, hasten



Es prioritario modificar la planificación de quienes han decidido ejecutar los despidos. Es necesario activar movilizaciones que vayan a generar un daño mayor a las empresas que los propios despidos (daño productivo, económico o reputacional) y preparar una lucha judicial generando el riesgo legal de anular los despidos. Solo cuando la empresa no sepa si podrá despedir a la plantilla se avendrá a negociar de verdad, bien evitando despidos, bien mejorando sustancialmente las indemnizaciones.

baita benetako negoziazioa: ondorioz, kaleratzeak ekiditen dira edo kalteordainak asko hobetzen zaizkie langileei.

Duela zenbait urte ELAk lantalde espezializatu bat sortu zuen kaleratzeei aurre egiteko; prozesu bakoitzean ikasitakoa baliatzen da langileak gero eta hobeto

defenditzeko. Mobilizazioa, greba eta talde juridikoaren lana medio emaitza onak bildu ditugu. ELAk lanpostuak bermatzen ditu, borrokatzeko animoa ematen du eta, batez ere, kaleratzeko xedea duen legediari aurre egiten dio. Ez dezala inork espero ELAk langileen kaleratzean laguntzea; sindikatu hau beti jarriko da lanpostuaren alde borrokatzen direnen aldamenean. ■

# Trantsizio ekosoziala negoziazio kolektiboan txertatzen

ELAk argi du ezin dela bidezko trantsizio ekosozial bat egin sektore horietako langileak alde batera utzita

> Ainhara Plazaola

Krisi ekologikoak eta trantsizioaren beharrak enpleguan eragina izango du epe motzera. Trantsizio ekosoziala langile klasearen eta gehiengo sozialaren interesak lehenetsiz eraiki behar da eta horregatik beharrezkotzat jotzen du sindikatuak borroka hau negoziazio kolektiboaren bidez ere egitea.

- Enpresei informazioa eskatzea: berotegi efektuko gas (BEG) emisioak, hondakinak, energia fosilen eta berriztagarrien erabilera eta ur kontsumoa.
- Hauen egoera hobetzeko planak eskatzea.
- Langileentzako mugikortasun planak eskatzea.
- Erosketa arduratsu berdea eta lokala eskatzea.
- Lantokietako jangeletan elikadura burujabetzan aurrerapausuak eskatzea.

ELA negoziazio kolektiboan trantsizio ekosoziala txertatzen ari da. Sindikatu garen heinean eguneroko ekintza sindikalean ere aurrerapausuak eman behar ditugu beharrezkoa den trantsizio ekosozialean. Arrazoi asko ditugu trantsizio ekosozial justua negoziazio kolektiboaren bidez bultzatzeko.

Sektore asko zeharkatzen ditu krisi ekosozialak eta honek enpleguan eragina izango du. Enpleguan gertatzen diren aldaketek eragin desberdina izango dute sektoreka, batzuk indartuko dira eta beste batzuk murriztu edo desagertu. Eta bidezko trantsizio ekosozial bat ezin da egin sektore horietako langileak alde batera utzita. Trantsizio ekosozial justuaren beharra gero eta argiago dago, langileon lan baldintza eta bizi baldintza egokiak bermatzeko beharrezkoa izango baita. Enpresek trantsizioa berdin-berdin egingo dute. ELAk trantsizio hori langile klasearen eta gehiengo sozialaren interesak lehenetsiz eraikitze borroka egingo du.

Negoizazio kolektiboa da sindikatuaren eguneroko lanean gauzak eraldatzeko dugun tresna. Lantokiz-lantoki eta sektorez-sektore aldaketak bultzatu behar ditugu, negoziazio kolektiboaren bitartez lantokietan trantsizio ekosozialean aurrerapausuak ematea enpleguaren defentsan aritzea baita.

2023tik lanean ari gara trantsizio ekosoziala sindikatuaren eguneroko lanean txertatzen. Iaz aldarrikapen taula bat onartu zen enpresaz enpresa lantzen hasteko eta lan horretan dihardugu oraindik ere. Ondorengo aldarrikapen taula hau lantokietan eskatzen hasiak gara:

Helburua urte bukaerarako 250 enpresetan informazio eskaerak eta aldarrikapen hauek eginak izatea da.

Honekin batera, negoziazio kolektiboan trantsizio ekosozialerako klausulak adosten eta negoziazioetarako plataformetan txertatzen aritu gara. Irekita ditugun edo irekitzearen dauden negoziazio esparru batzuetan, bai sektorialak, bai enpresakoak, trantsiziorako klausulak sartu dira plataformetan. Horretarako langileekin asanbladak egin dira eta klausulak adostu. Dagoeneko martxan dauden

En ámbitos de negociación abiertos o que se abrirán en breve, tanto sectoriales como de empresa, se han introducido cláusulas de transición ecosocial en sus plataformas. Para ello se han realizado asambleas con delegados y delegadas, y se han consensuado las cláusulas para la transición ecosocial



negoziaketa ezberdinetan sartu dira trantsiziorako klausulak, Bizkaiko garbikuntzan eta Gipuzkoako erresidentzietan adibidez. Kolektibitateetako sektorean ere (eskola publikoetako jangeletan) lanketa egiten ari gara etorkizunean izan daitezkeen negoziaketetarako. Hauetaz gain, hainbat sektoretan ere ELAko ordezkariak gogotsu ari dira lanean bakoitzak bere esparruan zein aldaketa edo aldarrikapen egin ditzakeen zehazten trantsizio ekosozialean aurrerapausuak emateko.

Etorkizunean irekiko diren beste negoziaketa esparruetarako ere proposatu dira trantsiziorako klausulak eta horren emaitza da 2026rako negoziazio ororen abiapuntu izango den plataforma orokorrean ere hainbat klausula txertatu direla lehen aldiz. Plataforma orokorrean sartu diren kalusuleetako batzuk hauek izan dira:

- **Informazio eskubidea:** Urtero ondorengo ingurumen informazioa eman behar zaie langileen ordezkariari: berotegi efektuko gasen emisioak, hondakinen kudeaketa, kontsumitutako energia fosila eta berriztagarria, eta ur kontsumoa.
- **Hobekuntza planak exijitzea hainbat arlotan:** Neurgarriak diren helburuekin ondorengo puntuetan hobekuntza neurriak hartu behar ditu enpresak: berotegi efektuko gasen emisioak, hondakinen kudeaketa, kontsumitutako energia fosila eta berriztagarria, eta ur kontsumoa.
- **Karbono urratsa murrizteko planak exijitzea:** Karbono urratsa murrizteko hobekuntza planak egin beharko dira. Planak jaso beharko ditu diagnostikoa, helburuak, neurriak, eta jarraipen eta hobekuntza plana.

- **Mugikortasun planak exijitzea:** Planak jaso beharko ditu: diagnostikoa, helburuak, neurriak, eta jarraipen eta hobekuntza plana.
- **Ingurumen ordezkariak izendatzea:** Ingurumen ordezkaria izendatuko da Ingurumen Baimen Bateratua duten enpresetan. Era berean, ingurumen ordezkaria izendatu ahal izango da beste enpresa batzuetan ere. Ingurumen ordezkariaren betebeharrak ondorengoak izango dira:
  - Ingurumen arloko araudia eta enpresak ezartzen dituen ingurumen arloko politika eta helburuak betetzen diren gainbegiratzea.
  - Ingurumen Baimen Bateratuaren jarraipena, karbono urratsa murrizteko plana edota mugikortasun planaren jarraipena, eta ingurumenaren egoera hobetzeko hartutako beste neurrien jarraipena egingo du.
  - Enpresak Ingurumen Baimen Bateratuak behartuta administrazio publikoari emisioei, hondakinen sorrerari, uraren eta energiaren erabilerei eta istripu larriei aurrea hartzeko neurriei buruz eman behar dion dokumentazioaren kopia jasoko du.

Negoiazio kolektiboaren bitartez trantsizio ekosozialean aurrerapausuak ematea ELAko ordezkariak seriotasun handiz hartu duten erronka da eta emaitzak ikusten hasiak gara. Bestalde, Kongresuan onartu den ponentzian ere trantsizio ekosozialaren beharra azpimarratu da, hurrengo urteetarako lan ildo garrantzitsua izango baita. Trantsizio ekosozial justua langile klasearen eta gizartearen gehingoaren mesedetan izan dadila borrokatzeko konpromisoa hartu dugu eta gure borrokaren parte izango da aurrerantzean ere. ■

## &gt; Aiala Elorrieta

Manu Robles-Arangiz Fundazioak eta Ipar Hegoa Fundazioak elkarlanean antolatu genuen jardunaldia Bilboko Bizkaia Aretoan, eta 150 lagunetik gora bildu ginen. Goizeko pausarako eskatuta genuen kafea motz geratu zen eta gehiago eskatu behar izan genuen! Egun osoko jardunaldian hitzaldi eta ekarpen anitzak jaso genituen, mundu akademikotik, sindikaletik eta mugimendu sozialetik etorritako hizlarien eskutik: gazte mugimenduen ikuspegia, etxebizitzaren arazoa, ekonomia sozial eraldatzailea, legegintzaren aukerak eta mugak, burujabetza prozesuak eta baita nekazaritza eta lehen sektorearen egoerak ere izan zuten tokia. Guztien ekarpenek elkarren osagarri eginez, Hego Euskal Herrirako lanbide arteko gutxieneko soldata propioaren inguruko gogoeta kolektibo eta aberatsa osatu zuten.

**Jule Goikoetxeak** hasiera hasieratik hausnartzen jarri gintuen: emakumeak eta pertsona migratuak kolektibo gisa tratatu ordez, klase frakzio gisa ulertzeko garrantzia nabarmendu zigun. Azaldu zuenez, gutxieneko soldatak langile-klasearen babes soziala handitzen du eta aberastasunaren banaketan eragiten du, bereziki soldata txikiak dituzten sektore feminizatu eta migratuetan. Hala ere, igoeraren ondorio zehatzak faktore politiko eta ekonomikoek baldintzatzen dituzte, hala nola kapitalaren eta lanaren arteko indar-korrelazioek. Horregatik azpimarratu zuen soldata-politikak lurralde bakoitzean erabaki behar direla, tokian tokiko botere harremanekin lotuta baitaude, eta Hego Euskal Herrian subiranotasun politiko eta ekonomiko handiagoa behar dela soldata duinen aldeko borrokan aurrera egiteko.

Oso motibagarria iruditu zitzaidan **Jone Etxeberriaren** hitzartzea. Ekonomia eraldatzailearen ikuspegitik kokatu zuen eztabaida, pitzadura txikien bidez sistema kapitalista heteropatriarkala eraldatzeko aukera gisa ulertuta. Alegia, praktikaren bidez, egunerokoan aritzearen eta sisteman



# Gutxieneko soldata propioaren hamaika abantailak

Maiatzaren 16an Lanbidearteko gutxieneko soldata propioaren inguruko jardunaldia egin zen EHUK Bilbon duen egoitzan

pitzadurak egitearen garrantzia mahaigaineratu zuen hitz gutxitan. Lanbidearteko gutxieneko soldata propioak zaurgarrien dauden gorputzak eta lurralde aniztasuna erdigunean jartzen dituela azaldu zuen, eta aldaketa sozial sakonago baterako bidean kokatu zuen aldarrikapena.

**Endika Alabortek** gutxieneko soldataren inguruko ikuspegi akademiko, politiko eta lurraldekoa landu zuen, neoliberalismoaren testuinguruan kokatuz. Lurralde-mailako gutxieneko soldatak ezartzea defendatu zuen, bizitzaren kostuen arabera egokitzapena ahalbidetzeko. Adibide gisa, Bartzelonako metropoli-eremurako



eta arrazista sakonak berez gainditu. Horregatik, soldataren igoerarekin batera, lan eta immigrazio politikan ere errotiko aldaketak planteatu behar direla aldarrikatu zuen.

Azkenik, **Roser Espeltek**, ELAko Azterketa Bulegoaren eta Negoziazio Kolektiboa eta Industria-politika Bulegoaren lankidetzarekin batera, Hego Euskal Herriako gutxieneko soldataren proposamen zehatza aurkeztu zuen. ELAren planteamenduak orain arteko batez besteko soldataren %60ren erreferentzia gainditzen du eta Barne Produktu Gordina per capita (BPGpc) hartzen du oinarri. Proposamenaren arabera, gutxieneko soldatak BPGpc-aren bi heren (%60-%70 artean) izan beharko luke, aberastasunaren banaketan urrats kualitatiboa eginez: soldaten parteaz gain, kapitalaren irabaziak ere banaketaren parte bilakatuz. Neurri honek 165.000 eta 225.000 pertsona artean izan lezake eragina, nagusiki emakume eta migratzaileak pilotzen diren zerbitzu eta zaintza sektoreetan. Proposamenarekin batera, politika fiskal progresiboagoak, industria-politika iraunkorra eta lanaldiaren murrizketa planteatu ziren, proposamena jasangarri eta eraginkor bihurtzeko.

Gaiak duen garrantzia estrategikoa dela eta, ELAren Kongresura ere eramane zen eztabaida, eta ebazpen berezi bat onartu zen. Ebazpenean, ELAk exijitzen zuen gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian erabaki dadila, eta sinadura bilketa, instituzioei presioa egitea eta mobilizazioak bultzatzea erabaki da helburu hori lortu arte. Kongresuan **Leire Gallegok** gogorarazi zuenez: “Mundu osoan, gutxieneko soldata kohesio sozialerako eta aberastasuna banatzeko tresna bat da. Baina Espainiako gutxieneko soldatak ez du funtzio hori betetzen gure herrialdean, hau da, ez du balio hemengo langile asko pobreziatik ateratzeko. Espainiako *Transizioa* delakoak lan-harremanen eredu zentralista ekarri zuen, eta hori Euskal Herriko langileen prekarizazioa sakontzeko erabili da.” ■

egindako ikerketa batek erakusten duenez, gutxieneko soldataren igoerak ez luke enpleguan eragin negatibo esanguratsurik izango, eta aldiz, soldata baxuen erosahalmena nabarmen handituko luke. Euskal Herrian ere, bere ustez, beharrezkoa da egungo estatu-nazioaren marko zentralizatutik haratago joatea eta lurralde bakoitzaren errealitate ekonomiko eta sozialera egokitutako proposamenak lantzea, gatazka sozialaren kudeaketa kontuan hartuta.

### ELAkideen hausnarketak

Ez da helburua egun hartako hitzartze guztiak jarraian laburtzea. Pintzelada txiki batzuetatik abiatuta, egokia iruditzen zait ELAko kideen ekarpenei lekua egitea. **Maider Domingok** genero-ikuspegitik aztertu zuen gaia. Emakumeek eta migratzaileek lan-merkatuan pairatzen dituzten arrakala desberdinak (soldata, pentsio, partzialtasuna, hitzarmen

kolektiboen estaldura...) nabarmendu zituen. Adibidez, EAEko emakumeek gizonekiko 5.780 euroko soldata-arrakala dute urtean, eta Nafarroan 5.926 eurokoa; gainera, emakume migratuen eta bertako gizonen artean, urteko 16.000-17.000 euroko alde handia dago. Negoziazio kolektiborik gabe dauden sektoreetan –emakumeak eta migratzaileak nagusi diren zerbitzu eta zaintza lanetan– gutxieneko soldata askotan sabaia bihurtzen dela azaldu zuen. Horrez gain, emakumeen %59ak 700 eurotik beherako pentsioa jasotzen du, pobrezia-arriskuan jarritz. Hori dela eta, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren igoerak kolektibo horien bizi baldintzak hobetzeko duen garrantzia azpimarratu zuen.

**Xioma Caterin Suazak** migratzaileen errealitatetik aztertu zuen proposamena. Gutxieneko soldataren igoerak bizi-baldintzak hobetu ditzakeela nabarmendu zuen, baina ohartarazi zuen aldaketa horrek ezin dituela egitura kolonial



## ELA logra un nuevo convenio en el comercio textil de Araba que garantiza el poder adquisitivo, además de otras mejoras

ELA, con un 70% de representación, ha firmado un convenio colectivo sectorial para el comercio textil de Araba para los años 2025-2027. El acuerdo recoge incrementos salariales que garantizan el poder adquisitivo. Concretamente, se han conseguido subidas salariales vinculadas al IPC: IPC + 0,6 % para 2025 e IPC + 0,5% para 2026. Tras firmar un convenio a cuatro años para evitar la aplicación del convenio estatal, ahora se han firmado las subidas salariales para los años 2025-2027, además de otras reivindicaciones del sector.



## ELAk lehen enpresa hitzarmena lortu du Caheer Servicios Al Marketing enpresan, lan hobekuntza nabarmenekin

Hainbat urtez Estatuko Birjarpen Hitzarmenaren baldintza eskasak jasan ondoren, ELAk Oionen (Arabako Errioxa) egoitza duen Caheer Servicios Al Marketing-eko lehen enpresa hitzarmena sinatzea lortu du. Coca Cola eta Danone produktuak birjartzeko eta marketineko zerbitzua ematen du Araba osoko supermerkatuetan. Akordioak, besteak beste, soldaten homologazioa lortu du Arabako Elikagaien Merkataritzako Hitzarmenarekin, Estatuko Birjarpen Hitzarmeneko 13.433 eurotik 17.471 eurora igarota, antzinasunaz eta plusez gain. Lanaldiaren murrizketa, osagarrien eta plusen hobekuntzak eta kontziliazio baimenak jasotzen ditu hitzarmenak.



## ELA logra un acuerdo en la construcción de Gipuzkoa con una subida salarial por encima del IPC y reducción de jornada

ELA, con un 74% de representación en el sector, ha logrado un acuerdo para las 14.000 personas trabajadoras del sector de la construcción en Gipuzkoa. El acuerdo tendrá una vigencia de cuatro años (2025-2028) y se recogen las principales reivindicaciones del sector: reducción de jornada, subida salarial por encima del IPC y el derecho de subrogación. Concretamente, ELA ha conseguido una subida salarial de IPC + 0,9 para 2025, una reducción de jornada de 8 horas, ampliar el derecho de subrogación y prohibiciones en la contratación a través de ETT. ELA destaca, además, contenidos novedosos para avanzar hacia una sociedad más justa. En el convenio se incluyen avances en cuanto a los protocolos de acoso, artículos a favor de las personas LGTBI y el compromiso para realizar planes de euskera en las empresas.

## ELA exige una investigación a fondo de las obras afectadas en Navarra por el 'Caso Cerdán'

A la vista de las profundas implicaciones del informe de la UCO y de la extrema gravedad

de lo que se va conociendo sobre el 'caso Cerdán', ELA exige una investigación a fondo sobre la adjudicación de diversas obras realizadas en Navarra. Cabe señalar que la trama corrupta que se está investigando en estos momentos incluye adjudicaciones que corresponden al Ministerio de Transportes, pero también otras que son entera responsabilidad del Gobierno de Navarra, como la adecuación del Navarra Arena (2017), los permisos para Mina Muga o incluso los túneles de Belate ahora en construcción.



### ELA lamenta la muerte de Angel Jauregi Meñika, Kaiku, delegado de Bizkaibus

La sección sindical de ELA en Bizkaibus lamenta la muerte de Angel Jauregi Meñika, *Kaiku*. La sección sindical destaca que *Kaiku* era una persona "leal, honesta, humilde, trabajadora, fiel, honrada, comprometida, cariñosa, sensata, cercana y de principios. Siempre estaba dispuesto a escuchar, pero también a aportar de manera activa. Era un líder dentro y fuera del puesto de trabajo, un liderazgo que en ELA es reconocido, y que ahonda aún más en el recuerdo. *Kaiku* deja una huella que perdurará siempre a nivel personal y a nivel sindical".



### El TSJPV estima el recurso de ELA y condena al conjunto de las empresas del Grupo Guardian y Autoglas-Parter por el despido improcedente de Autoglas

El TSJPV ha desestimado los recursos presentados por las diferentes empresas y estima el presentado por ELA, declarando la responsabilidad solidaria de las empresas del Grupo Guardian y Grupo Autoglas-Parter Capital a abonar a toda la plantilla de Autoglas OPCO BM S.L las indemnizaciones correspondientes al despido improcedente. La sentencia recibida el 12 de junio confirma el auto que declaró improcedente el ERE de extinción de la totalidad de la plantilla de Autoglas OPCO BM S.L., empresa ubicada en Laudio (Guardian). Se confirma, por lo tanto, que el expediente en Autoglas no estaba justificado.

La sentencia concluye que se trata de un claro caso de fraude para los trabajadores y de mala fe en el período de consultas. La sentencia, por tanto, confirma la relación de las empresas del grupo. ELA valora muy positivamente esta resolución judicial, que refuerza la querella presentada por el sindicato contra las referidas empresas del Grupo Guardian y Grupo Autoglas-Parter.

### ELA logra un acuerdo de fin de huelga que mejora las condiciones laborales en el Polideportivo de Barakaldo

El acuerdo alcanzado en el polideportivo de Barakaldo por ELA, que ostenta la representación de dicho centro, y la empresa EMTESPORT recoge un incremento salarial –salario base– de 1.000 euros anuales en 2025 y un 2,5% adicional en el 2027, las 1.592 horas de jornada para 2026 y un acuerdo de vacantes para paliar la precariedad que sufre el sector. Se trata de un acuerdo firmado después de más de un año de huelga en el que la plantilla ha sufrido servicios mínimos abusivos y que ELA ha recurrido mas de 10 veces, en las que el TSJPV le ha dado la razón.



Ezker eskuin, Joseba Villarreal, Xabi Anza eta Amaia Aierbe

# EMOZIOZ BETETAKO AGURRAK

**E**Laren XVI. Kongresu Konfederala berezia izan zen Joseba Villarreal, Xabi Anza eta Amaia Aierberentzat. Izan ere hirurek agur esan zieten Batzorde Eragilean zituzten ardurei. Xabik eta Amaiak adin kontuak direla eta sindikatuan zituzten ardurak utzi dituzte; Josebak, bestelako ardurak izango ditu sindikatuan hurrengo urteetan. Hirurek agur esateko aukera izan zuten, norbera bere erara.

Amaia Aierbek aipatu zuen ez zela "agur bat militantziari, ez eta sindikatuari", oraindik ere sinetsita dagoelako mundua aldatu daitekeela, "elkartasunez eta antolakuntzaz". Amaia 36 urtez egon da ELAn, ardura ezberdinetan, eta argi du "merezi izan duela", jaso duena eman duena baina askoz gehiago izan delako. Hamaika lagunez gogoratu zen bere agurrean, baina, bereziki, "etxekeetaz".

"Sindikalista zoriontsu bat izan naiz". Hala hasi zuen bere parte hartzea Xabi Anzak. ELAn aritzea eta militatzea "naturala" izan dela aitortu zuen, "langileen semea izanagatik berez zetorren gauza". Anzaren ustez gauza gutxi daude munduan ELAn militatzea baina ederragoak. Horregatik, atzoko, gaurko eta biharko ELAkideak izan zituen gogoan.

Mario Benedetti poetaren hitzekin amaitu zuen bere hitzaldia, "batzuetan soilik poetek asmatzen dutelako sinisten eta sentitzen duguna esaten".

*La consigna es vivir al margen de ellos o en medio de ellos, con la paciencia que solo tienen los pueblos.*

*La consigna es joderles el proyecto, seguir siendo nosotros y ser parte de esa linda tribu que es la humanidad*

Azkenik, Joseba Vilarrealek bertsotan agurtu zituen Euskaldunan bildutako ELAkideak, umoretik.

*"Zoriontsuak izan ta lankide onak  
Umore ta borrokak uztartzen dituztenak  
Gureari tinko eutsi egin ahaleginak  
Gora munduko langile fin eta txukunak"*

Ba hori. Gora munduko langile fin eta txukunak!



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129